

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa. Onespena ematea Arabako Foru Ogasunaren aurrean aitorenak eta autolikidazioak telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzeari

Foru dekretu honen xedea da zergadunek aitorenak eta autolikidazioak Foru Ogasunean telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak eguneratzea.

Hartara, autolikidazioak, aitorenak, aitoren likidazioak, eskaerak eta aitoren informatiboak telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak arautu dira.

Foru dekretuak zortzi artikulua ditu, eta araututako gai nabarmenen artean daude, besteak beste, telematikoki aurkeztu beharreko aitorenak, aitorenak modu horretan aurkeztu behar dituzten zergapekoak, betekizun orokorrak edota modalitate horretan aurkezteko prozedurak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Telematikoki aurkeztu beharreko aitorenak

1. Autolikidazioak, aitorenak, aitoren likidazioak, eskaerak eta aitoren informatiboak telematikoki aurkeztu beharko dira, Arabako lurralde historikoaren zerga sistemaren esparruan Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala ezartzen duen kasuetan.

2. Aurreko apartatua aipatutako betebeharra betetze aldera, Arabako Foru Aldundiak kasu bakoitzean beharrezkoa den informazio eta laguntza jarriko ditu zergapekoen esku.

3. Foru dekretu honen ondorioetarako, aitorenen gainean egindako erreferentziak autolikidazioen, aitorenen, aitoren likidazioen, eskaeren eta aitoren informatiboen gainekoak direla ulertuko da.

2. artikulua. Aitorenak telematikoki aurkeztu behar dituzten zergapekoak

1. Oro har, jarduera ekonomikoa garatzen duten zergapekoak aurkeztu beharko dituzte aitorenak telematikoki, baita Sozietateen gaineke Zergako zergadunek ere, betiere, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorritik, kasuan kasuko aitorenak Arabako Foru Aldundian aurkezteko betebeharra badute.

2. Aurreko apartatua ezarritakoaren esparruan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak adieraziko du aitoren mota bakoitzean aitorenak telematikoki aurkezteko betebeharra duten zergapekoak nor diren.

3. 1. apartatua aipatutako jarduera ekonomikoaren kontzeptua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineke Zergaren edukian ezarritakoa da.

3. artikulua. Aitorenak telematikoki aurkezteko betekizun orokorrak eta prozedura orokorra

1. Aitorenak telematikoki aurkezteko betekizun orokorrak.

Aitorenak telematikoki aurkezteko, oro har, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Aitorenak telematikoki aurkezteko betebeharra duen zergapekoak identifikazio fiskaleko zenbaki bat eduki beharko dute eta Arabako Foru Ogasuneko Zergadunen Erroldan izena emanda eduki beharko dute aitorena aurkeztu baino lehenago.

b) Horrez gain, zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak edo profesional bamenduak sarbidea izan beharko du erabiltzaile gisa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora (AldundiDigitala) –aurrerantzean AFA–, apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuan eta azaroaren 29ko 74/2011 Foru Dekretuan araututakoa.

Foru dekretu honen ondorioetarako, “profesional” gisa ulertuko dira 2001eko apirilaren 10eko 50/2001 Foru Dekretuaren 3. artikulua aipatzen dituen pertsona naturalak edo juridikoak, baldin eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren menpe dagoen Baimen Erregistroan alta emanda badute.

Aurreko betekizunak ez betetzeak ez du salbuetsiko foru dekretu honetan aipatutako aitorenak telematikoki aurkezteko betebeharretik.

2. Aitorpenak telematikoki aurkezteko prozedura orokorra honako hau da:

a) Pertsona aurkezlea AFAko egoitza elektronikora konektatuko da, dela Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programa baten bitartez, dela zuzenean www.araba.eus helbide elektronikoaren bitartez.

Ziurtagiri digitala edo horretarako gaitzen duen beste edozein sistema beharko da AFAREN egoitza elektronikora sartzeko.

b) Aitorpena aurkeztu ondoren, aitorpena eta, hala badagokio, atxikitako dokumentuak edo fitxategiak aurkeztu izana justifikatuko duen agiri bat sortuko da; horrez gain, zein data eta ordutan aurkeztu den ere jasoko da agirian.

4. artikulua. Aitorpenak aurkezteko epea

Aitorpenak aurkezteko epea kasuan kasuko aitorpenaren araudi arautzailean ezarriko da.

5. artikulua. Aitorpenak aurkeztea: arau orokorrak

1. Aitorpenak “profesionalen” bidez telematikoki aurkeztu behar direnean, foru dekretu honetako 7. artikuluan xedatutakoa betez egin beharko da.

2. Aitorpenak zergapekoak berak edo ordezkari boluntarioak telematikoki aurkeztu behar dituzenean, foru dekretu honetako 8. artikuluan xedatutakoa beteko da.

6. artikulua. Ordaintzeko eta itzultzeko modua

1. Telematikoki aurkeztutako aitorpenei dagozkien ordainketak edo itzulketak indarrean dagoen legedian ezarritako epe eta prozeduren bitartez egingo dira.

2. Legez ezarritako epez kanpo telematikoki aurkeztutako aitorpenak Arabako Zerga orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan eta zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren mende egongo dira.

7. artikulua. Aitorpenak “profesionalen” bidez telematikoki aurkezteko prozedura

“Profesionalak”, aitorpenak telematikoki aurkeztu ahal izateko, foru dekretu honetako 3. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren prozedura arauak bete beharko dituzte, baita jarraian azaltzen direnak ere:

1. Telematikoki aurkeztu beharreko aitorpenak bi bide hauetako edozein baliatuz prestatuko dira:

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programen bitartez; programa horiek Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik deskargatu ahalko dira (www.araba.eus).

– Fitxategi bat lortzeko aukera emango duten bestelako garapen informatiko batzuen bitartez; fitxategi hori igorri aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak horretarako prestatutako programarekin baliozkotu beharko da.

Baliozkotze programa hori www.araba.eus webgunearen bitartez deskargatu ahalko da, eta horri esker egiaztatu ahalko da sortutako ereduak araudian ezarritako formatua, ezaugarriak eta zehaztasunak dituela.

2. Aurreko 1. apartatuan adierazitako edozein modu erabiliz egiten diren aitorenak erloka batu ahal izango dira, telematikoki fitxategi bakarrean aurkezteko; salbuespen moduan, hala ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak aitorenak nahitaez banaka aurkeztu behar direla adierazi ahal izango du.

Aitorenak prestatu ondoren, "profesionala" Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikora konektatuko da, dela erabiltzen ari den laguntza programatik, dela www.araba.eus webgunearen bitartez, aipatutako egoitza barruan horretarako gaitutako edozein identifikazio sistema erabiliz.

Zuzenean Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikora sartzea aukeratuz gero, "Zerga bidalketak" zerbitzua hautatu beharko da. Zerbitzu horren bitartez, baliozkotutako fitxategia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera igorriko da.

3. Bidalketa onartzen bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jaso izanaren agiria sortuko du: bertan erregistro zenbakia eta aurkezpenaren data eta ordua agertuko dira. "Profesionalak" jaso izanaren agiria inprimatu ahalko du telematikoki igorritako fitxategia bidali eta jaso izanaren ziurtagiri modura.

Bidalketak okerra ematen duenean, aitzitik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aurkezpena atzera botatzeko arrazoiak azalduko dizkio "profesionalari". Hartara, dokumentu bat sortuko du, eta bertan erregistro zenbakia eta igorpenaren data eta ordua agertuko dira; "profesionalak" inprimatu ahalko du.

Atzera bota den fitxategia berriz bidali daiteke telematikoki aipatutako okerrak zuzentzen direnean; orduan, "profesionalak" telematikoki bidalitako fitxategia jaso izanaren agiria inprimatu ahal izango du, lehenago adierazitako inguruabarretan.

4. Igorritako aitorenekin batera ez bada agiririk bidali behar, "profesionalak" jasotze agiria inprimatzeak berretsi egingo du aitoren aurkezteko prozedura bukatu egin dela.

5. Igorritako aitorenekin batera dokumentazioa bidali behar denean, aldiz, dokumentazio hori ere telematikoki aurkeztuko da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak dokumentazioa aurkezteko beste moduren bat ezartzen ez badu behintzat. Telematikoki aurkeztuz gero, jaso izanaren ziurtagirian atxikitako dokumentazioa ere aipatuko da.

8. artikulua. Zergapekoak edo ordezkari boluntarioak aitorenak aurkezteko prozedura

1. Aitorenak zergapekoak berak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak aurkeztu ahalko ditu telematikoki.

2. Aitorenak telematikoki aurkeztea egokitu egin beharko da foru dekretu honetako 3. artikularen 2. apartatuan aipatzen diren prozedura arauetara; horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskainitako edozein laguntza programarekin sortutako fitxategiak elektronikoki igortzeko prozedura edo "on line" egindako aitoren enen prozedura erabiliko da.

3. Aitorenak eta, hala badagokio, agiriak aurkezteko jarraian adierazitako prozedura arauak bete beharko dira:

A) Fitxategi informatizatuak elektronikoki igortzeko prozedura:

1. Telematikoki igorri beharreko aitorenak bi bide hauetako edozein baliatuz prestatuko dira:

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programen bitartez; programa horiek Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik deskargatu ahalko dira (www.araba.eus).

– Fitxategi bat lortzeko aukera emango duten bestelako garapen informatiko batzuen bitartez; fitxategi hori igorri aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak horretarako prestatutako programarekin baliozkotu beharko da.

Baliozkotze programa hori www.araba.eus webgunearen bitartez deskargatu ahalko da, eta horri esker egiaztatu ahalko da sortutako ereduak araudian ezarritako formatua, ezaugarriak eta zehaztasunak dituela.

2. Aitorpenak prestatu ondoren, zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak igorri egingo ditu Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikora konektatuz, dela erabiltzen ari den laguntza programatik, dela www.araba.eus webgunearen bitartez, aipatutako egoitza barruan horretarako gaitutako edozein identifikazio sistema erabiliz.

Zuzenean Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikora sartzea aukeratuz gero, "Banakako aitorpenak aurkeztea" izapidea hautatu beharko da. Zerbitzu horren bitartez, baliozkotutako fitxategia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera igorriko da.

Bidalitakoa onartzen bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jaso izanaren agiria sortuko du: bertan erregistro zenbakia eta aurkezpenaren data eta ordua agertuko dira. Zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak jaso izanaren agiria inprimatu ahalko du, telematikoki igorritako fitxategia bidali eta jaso izanaren ziurtagiri modura.

Bidalketak okerra ematen duenean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aurkezpena atzera botatzeko arrazoiak azalduko dizkio zergapekoari edo ordezkari boluntarioari. Hartara, dokumentu bat sortuko du, eta bertan erregistro zenbakia eta igorpenaren data eta ordua agertuko dira; zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak inprimatu ahalko du.

Atzera bota den fitxategia berriz telematikoki bidali daiteke aipatutako okerrak zuzentzen direnean; orduan, zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak telematikoki bidalitako fitxategia jaso izanaren agiria inprimatu ahal izango du, lehenago adierazitako inguruabarretan.

3. Agiriak aurkeztea.

Igorritako aitorpenarekin batera ez bada agiririk aurkeztu behar, zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak jasotze agiria inprimatzeak berretsi egingo du aitorpena aurkezteko prozedura bukatu dela.

Igorritako aitorpenekin batera dokumentazioa bidali behar denean, dokumentazio hori ere telematikoki aurkeztuko da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak dokumentazioa aurkezteko beste moduren bat ezartzen ez badu behintzat. Telematikoki aurkeztuz gero, jasotzeko ziurtagirian atxikitako dokumentazioa aipatuko da.

B) Aitorpenak "on line" aurkezteko prozedura.

1. Zergapekoa edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioa, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikora konektatuko da www.araba.eus helbide elektronikoaren bitartez, aitoritutako ziurtagiri elektronikoa erabiliz edo Arabako Foru Aldundiak baimendutako sarbide sistema alternatiboaren bitartez.

2. Zerga eredu online sortzeko, egoitza elektronikora konektatu ondoren "Banakako aitorpenak aurkeztea" izapidea aukeratu beharko da. Zerbitzu horri esker on line sortutako ereduak sortu eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera igorri ahalko da.

3. Agiriak aurkeztea.

Igorritako aitorpenarekin batera ez bada agiririk aurkeztu behar, zergapekoak edo, hala badagokio, ordezkari boluntarioak jasotze agiria inprimatzeak berretsi egingo du aitorpena aurkezteko prozedura bukatu dela.

Igorritako aitorpenarekin batera dokumentazioa bidali behar denean, dokumentazio hori ere telematikoki aurkeztuko da salbu eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak dokumentazioa modu presentzian aurkeztu behar dela ezartzen badu. Telematikoki aurkeztuz gero, jasotzeko ziurtagirian atxikitako dokumentazioa aipatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen da Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu ziren foru ogasunari aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza orokorrak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aurrera eramateko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta aurkezteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den aitortpenei eragingo die.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA